


IRITZIA: ENEKO DORRONSORO / AIA: JOXEPA ETXEBERRIA
ERREPORTAJEA: ORIOKO APAIZAK

010 eta 0100 abuztuaren / 179. zenbakia / 2007 / 06 / 11

KARKARA

119A



Erregeak kiroldegian



saltoKa

AEROBIK MARATOIA EUSKARAZ



2 0 0 2
urtarrilaren 19a
larunbata 17:00

Getariako Sahatsaga
KIROLDEGIAN

Monitoreak

- Ainara Beobide (Getariako eta Aiako kiroldegia)
- Ione Miner (Hernaniko kiroldegia eta Kursaal gimnasioa)
- Iñaki Viñuela (Bilboko Urtzi Fitness gimnasioa)
- Imanol Benito (Zarautz)

Izen ematea

Urola Kostako Udal Elkarteko
Euskara Zerbitzuan
☎ 943 89 43 06 • Faxa: 943 83 51 47
uke-euskara@jet.es
Aldez aurretik, 3 €



KARKARA

Orion eta Aialko aldizkaria

Kultur etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@topagunea.com

LEGE GORDAILUA SS 346/90

ISSN 1132-1105

TIRADA 2.750 ale

EDITOREA

KARKARA TALDEA

ZUZENDARIA

Ana G. de Txabarri

ERREDAKZIO BURUAK

Pat Cowie eta Olatz Elustondo

ERREDAKZIO TALDEAMiren Etxeberria, Jakes
Goikoetxea, Ana Iturain,
Iñaki Iturain, Nere Manterola,
Ainara Peña, Rikardo Uzkudun
eta Jabier Zabaleta**AIANO ERREDAKZIOA**

Garbiñe Azpiroz eta Eli Lasa

PUBLIZITATEA

Mari Jose Alkain

TESTUEN ZUZENKETAMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**ALE HONETAKO LAGUNTZAILEAK**Eneko Dorronsoro, Josean
Manterola, eta Tatiana
Naidenova.**ARGAZKIEN DIGITALIZAZIOA**

Ana G. de Txabarri

DISEINUA

AZALA Goio Arana

BARRUKOA Jabier Zabaleta

PUBLIZITATEA Ana G. de Txabarri

BANATZAILEAKMiguel Angel Sanz (Orion)
Rosa Alkain (Aian)**INPRIMATEGIA**

Gertu Koop. E. (Oñati)

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
edota iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berre-
man dalteke, osonik edo zatika,
baldin eta iturria aipatzen bada.**BERTSO JARRIAK**
Euroa

1

Aspaldian banentorren,
iritsi naiz azkenik.
Tonto aurpegi galanta
daukat alde batetik,
ni sortu nauten herrien
mapa beste aldetik.
Niretzat ez da mugarik,
ez gose, ez gerrarik.
"Papa"-ren bendizioa
eskuetan izanik,
Europako jaungoikoa
bihurtu naiz jadanik(bis)

2

Eman eta zabalduko
dut munduan hazia,
gehiago indartu dadin
gezurraren grazia,
"zibilizazioaren"
"demagogikrazia".
Gauza da kapitalaren
lepoa gizentzia.
Nahasketarik sortzen badut
hartu pazientzia,
nik indartuko baititut
enpresa eta zientzia. (bis)

3

Nahiz eta bakardadean
izan soilik txanpona,
ni naiz diru osuari
izen eman diona.
Elizan botako naute,
hori ez dugu broma,
hortik Gest-karteretara,
haiek zaku sakona.
Nik zer dakarkizuedan
azken finean ona,
gehienoi buruhausteak,
batzuei zoriona.(bis)

JOSEAN MANTEROLA «ZATAIN»

PUBLIZITATE PREZIOAK**IRAGARKIA ALEKO JARRITA**

Modulo bat	9,50 €(I.V.A.)
Bi modulo	19 €(I.V.A.)
Hiru modulo	28,50 €(I.V.A.)
Lau modulo	38 €(I.V.A.)
Sei modulo	57 €(I.V.A.)
Zazpi modulo	76 €(I.V.A.)
Orialde erdia	95 €(I.V.A.)
Orialde osoa	160 €(I.V.A.)

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulo bat	12,50 €(I.V.A.)
Bi modulo	25 €(I.V.A.)
Hiru modulo	37,50 €(I.V.A.)
Lau modulo	50 €(I.V.A.)
Sei modulo	75 €(I.V.A.)
Zazpi modulo	100 €(I.V.A.)
Orialde erdia	125 €(I.V.A.)
Orialde osoa	220 €(I.V.A.)

Publizitatea kontratatzeko, hitz egin Mari Jose Alkainekin (656 75 04 89 edo 943 33 41 46)

Eusko Jaurlaritzak
diruz lagundutako aldizkariaGipuzkoako Foru Diputazioak
diruz lagundutako aldizkariaOrieko Udalak
diruz lagundutako aldizkariaAialko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria

Eskerrik asko Aiako Meltxor, Gaspar eta Baltasar, bihotzetik

Gu txikiak ginela, urtero etorri ohi ziren Hiru Erregeak etxera eta goizaldean haiek utzitako opariak hartu eta gozaten ginen. Aurtengo urtarrilaren 6ko goizaldean ere etorri zaizkigu; baina aurten, lehen ez bezala, Hiru Erregeak gorputz eta arima izan ditugu etxean: ordu batean atea jo, sartu, eta guk eskuratu genizkien opariekin haurrak esnatu eta haiekin egon ziren pixka batean, herriketan, goxo-goxo. Gure haurrak gau horretan munduko haur zoriontsuenak izan ziren, hunkituta egon ziren erregeak etxean izan genituen bitartean. Eta poza eta zoriontasuna kutsagarriak direnez, haurren poz hura guk ere sentitu genuen, barren-barrenean. Txikitari ere ez ginen gu horrenbeste pozta.

Eta hori posible egin duten gazte aiarrei eskerrak eman nahi dizkiegu. Batzuei txorakeria irudituko zaie, baina Hiru Erregeak eta bi morroi laguntzaileak gorpuztu zituzten bost neska-mutil aiarrek, musutruk, ia gu



gutunetarako **OHARRAK**

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN buzoian utz daitezke (udal-letxe atzeko portalean), edo gure lokalean entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera:

karkara@topagunea.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

osoa etxer etxe eman zuten, txikiei eta handiei ilusioa eginez. Bost gazte horientzat gure esker ona. Benetan.

ARTURO SANTOS ETA KARMELE GALATAS

Eskerrik beroenak

Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu Gabonetako loteriarako billeteak erosi zizkiguten guztiei. Herriko jendea oso ongi portatu zen gurekin orduan eta orain ere bai, izan ere, asko izan dira, zozketan egokitutako bota adinakoari uko eginez, dirua taldearentzat utzi nahi izan dutenak. Estimatu dago. Jakin ezazue diru hori primeran etorriko zaigula aurtengo egitasmoekin aurrera egiteko, eta baita sanikolasetan jarri genuen tabernarekin izandako porrota ahazteko ere.

ORB (ORIOKO BATE BIZKORRAK)

Aurkitutako eta galdutako gauzak

Ume baten urrezko pultsera txikia aurkitu dugu. «Leire» izena darana eskumuturrekoak idatzita.

Bestetik, urrezko ume eraztuna azaldu da. Harri urdin iluna du eta Gabonak baino astebete lehenago galdu zuten, Arrantzale kale inguruan.

Informazio gehiago nahi duenak udaltzainengana jo dezala.

ORIOKO UDALTZAINGOA

hasi ezazu urtea sasoi onean
eta gozatu kiroldegian

karela
Orloko kiroldegia



Helduak:
aerobik, yoga, fitness pertsonalizatua eta igeriketa
Haurrak:
aerobik, igeriketa, judo eta gimnasia erritmikoa
Gazteak:
aerobik eta judo
Edadetuak:
gimnasia eta igeriketa

ZATOZ GALDETZERA

HYDRA

Zer moduz konpondu zara euroarekin?



ELI SANCHEZ
51 urte

Oso ondo. Behin Gabonak pasata, salmenta gutxiko egunak dira hauek guretzat, eta lasai-lasai gabiltza. Jende heldua, gehienbat, pezetarekin etorri zait, eta batek urte bukaeran ehun mila pezeta atera zituela ere esan dit, bukaerara arte pezetarekin moldatzeko.

Jeneroa erosteko, kalkulagailua erabiltzen dut, eta denbora gehiago behar dut kontuak egiteko, baina jendea pazientzia handia du.



M. JESUS LERTXUNDI
54 urte

Hasieran nahiko buru-hauste eman zidan, baina orain hobeto nabil. Pezete-kin, txanpon guztiak batera gordetzen nituen askotan; baina, orain, ondo bereizita gordetzen ditut euroak, ohitu arte.

Jendea fidatzen da emandakoarekin, eta gehienek gure esku uzten dute konstatzea. Halere, oraingoz behintzat bukatu da mahai gainean egunkariaren dirua utzi eta alde egitea.



M. PILAR OLIDEN
45 urte

Ohitu arte, gaizki. Zaharren Babeslekuan, gainera, bi prezio kobratzen ditugu (zaharrentzat eta kanpokoentzat), eta are okerragoa da, eskerrak seme-alabek lagundu didaten. Askok ez dute ondo ikusten, baina fidatzen dira ematen diezunarekin.

Askok uzten dute propina, eta orain pezetak behar-rean xentimoak utziko dituzte. Segituan ohituko gara eurora.



JOSE ROS
60 urte

Ondo, baina jendea nahastuta dabil eta konparazioak egiten dituzte ondo kobratu duzun ikusteko. Nik euroaren kontua ondo hartu dut, aurrerapausoa dela iruditzen zaidalako: beste herrialdeetara joatean ez dugu txanpona aldatu beharrik izango.

Taximetra oraindik pezetatan daukat; eurotan jartzeko eraman nuen, baina lan asko zatela eta atzeratu egin zidaten aldaketa.

GABON

Plater konbinatuak, pintxoak eta txokolatadak

Tfnoa: 943 83 08 09

ARKAITZ Taberna

Platerak, plater konbinatuak, txokolak

Abeslari kalea, 4 Tef. 943 83 16 57 ORIO

KALITATEA

EUSKAL OKELA

Juantxo herategia

943 83 18 37

EUSKAL LABEL

Hezagindegia

MARJO

Eusko Gudari, 8 - bajo

Tel. 943 13 47 29

ORIO

Allianz

Marigre Zaldua

aseguru agentea

Bai Ordo: 10 bete-ona

telefonoa: 943 13 47 80

fax: 943 83 57 52

e-maila: zaldua.delaunz.pa@allianz.es


PERRUSTA

ORIO KORSTA

Tragoxka

Pub

Aritzaga, 11



UDALETXEO BERRIA PLANOTAN. 2003ko abendurako, gutzak ondobideten, bolako itxura hartuko du udaletxe berriak.

Udaletxea berritzeko obrak

■ *Martxoan hasiko da eraikin osoa berrituko duen obra.*

Udaletxea berritu behar dela-eta udal zerbitzuak

Azurza etxera pasako dira aste gutxi barru.

Obra hartu duen enpresa

Aste Santua baino lehen hasiko da lanean, eta urte eta erdi beharko du bukatzeko.

go da. Proiektua Juan Eizmendik egin zuen udal arkitektoa zen garaian, eta Amaia Usandizaga udal arkitekto teknikoak egin du segurtasuneko ikerketa eta kalitateko kontrola.

Berritu eta gero, teiltuaren formagatik eta kanpoko fatxadaren ezaugarriengatik, zabalagoa emango du eta udaletxe itxura gehiago izango du.

Goitik hasita, hirugarren

solairuan, Udaleko artxiboa eta jubilatuentzako 2 gela izango ditu. Bigarren solairuan zinegotzi entzako gelak, epaitegikoak eta pleno aretoa egongo dira. Udal zerbitzu gehienak lehen pisuan eta behekoan egongo dira: lehenengoan udal bulegoak eta zerbitzu teknikoak eta behekoan, herriz, erregistro orokorra, komunak, udaltzaingoa, brigadaren lokala eta komunika-

zio gela. Igogailua izango da aurreko zein atzeko sarreratik erabiltzeko, eta eskailerak ere bai; horrela, pleno aretora atzetik sartu ahal izango da. Zaharren egoitza berria orain dagoen tokian izango da, eta elbarrituentzako arrapala izango du errio aldera. Oraingo portxearen barruan geratuko da, eta sarrerako eskailerek plazaren zatitxo bat hartuko dute.

Zortzi enpresak jaso dute lehiaketako dokumentazioa, baina ezin da jakin zenbat aurrekontu diren. Aukeratzen den enpresak urte eta erdiko epea izango du obra egiteko, udaberrian hasita. 1.331.766,35 eurotako (221.587.276 pezetako) aurrekontua du obrak eta eraikuntzako lan guztia barne dago, gortinak, altzariak eta manparak izan ezik.

PLAZA ETA INGURUA

Obra handia izango denez, ingurua itxi beharko da: moila aldeko espaloia, atzeko karkararen erdia, eta kaleko espaloia. Plazari 8 bat metro kenduko zaizkio obrako gauzak jartzeko, eta kamioiak moila aldetik sartuko dira behar denean. Horren guztiaren ondorioz, plazaren erabilera murriztuta izango da urte eta erdian. Herriko jarduera batzuk, beraz, egokitu egin beharko dira denbora batean.

AZURZA ETXEA

Eraikuntza berria egin bitartean Udala Aritzaga kaleko 15era joango da, Azurza familiak herriari utzitako etxera. Amaia Usandizagak egin du hura egokitze proiektua: *Etxe zabarra da eta dagoenera moldatu gara. Ez dugu parveta bat ere bota, ez baitakigu zer erabilera emango zaiou gero. Gelak txikiak dira eta toki askoz ere gutxiago izango dugu. Ez da bain errosa izango, ez jendearentzat ez guretzat, baina gutxi gastatuta egokitu dugu. Askos toki gutxiago izango dugu eta ez da erroza izango.*

HARIARI TIRAKA

Pazientziya!

Amaia Usandizaga, arkitekto teknikoak

Laster hasiko dira udaletxea berritzeko lanak, eta, jakina, obra guztiak bezalaxe, hauek ere eragozpen dezente ekarriko dituzte: sortuko den zarata eta zikinaz gain, plazako zati bat itxita geratuko da, eta, bestalde, udal bulegoak behin-behineko hartuko dituen Azurzaren etxea ere ez da izango litekeen erosoa. Hala ere, udaletxe berria, bukatutakoan, askoz egokiagoa izango da oraingoa baino, eta uste dut mereziko duela *kalamidade* horiek denak pasatzea.

BERRI LABURRAK

Jatetxeetako kartak euskaraz

URTE berrian herriko jatetxeetako karta gehienak berriro egin behar izan dituzte, prezioak eurotan jartzeko, eta hori aprobetxatuz kartak euskaratzeko kanpaina egin du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Ekinenak erantzun ona izan du eta herriko jatetxe gehienetan karta euskaraz eska daiteke gaur egun.

Antzerki tailerra

BALEAREN eguneko antzerki lan handiari jarraitpena emateko asmoz, antzerki tailerra antolatu nahi du Udalak. Helduentzat izango da eta Marije Gurrutxaga izango da irakasle, horrelako lanetan urte askotako esperientzia baitu. Bi atal izango ditu: bata, teknika lantzeko eta bestea, obra bat prestatzeko, jende aurrerako. Interesa duenak kultur etxean eman behar da izena, urtarilaren bukaera baino lehen.



BERRIAK IANTZIA. Hotz egin zuen, eta nabiko lan izan zuten haurrek abotsa afintzen.

Gabonak: ilusioa eta gizatasuna

AURTEN ERE HERRIKO hainbat talde atera ziren kantatzera Gabon egunean. Hotz handia egin zuten, baina herriko bi eskolako haur eta gaztetxoek ilusioz eutsi zioten ohitura zaharrari. Bi talde egin zituzten: 12 urte artekoak kalean ibili ziren eta zaharagoak, berriz, baserri baserri. Guztira 540 euro (90.000 pezeta) inguru bildu zituzten eta aurreko urteetan bezala, Ruandara, Ciharako eskolara bidaliko dute dirua Leonardo Esnaolaren bidez, besteak beste, eskolako

materiala, janaria eta jantziak erosteko.

Abenduaren 29an jaiotza lehiaketa antolatu zuten Talai-Mendik. 8 talde aurkeztu ziren eta irabazleak hauek izan ziren: Garazi eta Iratxe Oliden, Aurora Makazaga eta Janire Arrondo.

Erregeen kabalgata ere oso ondo joan zen. Jende asko azaldu zen farolekin erregeei laguntzera, eta hiru erregeak oso gustura agurtu zuten Orio, kiroldegia ezagutzeaz gain, soinean jantzi berriak zeramatzatelako.

Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINOEGIA
frontoi ondoan
ifnoa: 943 83 01 89

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax: 943 130 144 AIA-ORIO

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Fileta eta zerbitzu orokorrak

- Donostia eta probintziako ospitaleetan
- Aldiarako zerbitzua
- Belatorio gelak
- Koroak, eskalak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 86 48 37 / Fax: 943 86 49 43
e-mail: harnospil@harnospil.net

MAKAZAGA

Igeltseritza

- Igeltseritza orokorra, denetatik egiten dugu
- Presupuestoen eskaintza konpromisoekin gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00



ANGULA GUTXI ETA GARESTI. 45.000 eta 70.000 pezeta bitartean egin du barrapatutako angula gutxiak arrandegian.

Angula urte eskasa

■ *Multa-abisuak eta BEZa angulazaleentzat*

IAZ ANGULA GUTXI izan zen, eta aurtan, are gutxiago. Azaroko uralditan poliki harri-patu zuten eta abenduko ilargian ale batzuk egun batean; baina, gainerakoan, ez da angularik izan. Arrandegian 45.000 eta 70.000 pezeta artean egin du angulak.

Jesus Mari Manterolak esan digunez, *aurten ez du euririk egin, eta, anguletan negu polita izateko, iraila aldean errisa pare bat aldiz ziritu egin behar du euririk. Aurtan, gainera, zikina ere bota dute goitik niretzat.*

ISUN ABISUAK ETA BEZ-A

42 ontzi daude Orion anguletarako preparatuta, eta horietatik dozena bat ibiltzen dira beti. Iaz multa abisuak heldu zitzaizkien Gobernutik angulazaleei, eta, ordaz gero, bi bilera egin dituzte. Errekreoko ontziak direnez, sarerik ibiltzerik ez dutela adierazi zien Euskal Gobernuak. Angulazaleek idatzi bat aurkeztu

zuten angula beti bahearekin, sarearekin, harri-patu dela esanez, eta, azkenean, horretan geratu zen kontua. Orain, ASTIko biologoak ikerketa bukatu eta Gobernuak zer erabaki zain daude.

Jesus Mari Manterolak esan digunez, *Urte batzuk oso onak izan ziren, baina iaz, esaterako, gutxi harri-patu zen, eta aurtan, batere ez. Aginagan, gainera, faktura egin eta BEZa (IVA) kobratzen bazi zaitzigu, eta, borroka, deklaratzera behar izan gaituzte. Anguletan gabiltzan gebienak jubilatutak, langabetuak eta lehorrean lan egiten dugunak gara, eta, Gobernuak profesionalizatu egin nahi badu ere, ez dago hortik ogia ateratzerik.*

Anguleroek lizentzia bat ordaintzea proposatu diote Gobernuari, antzina ere halaxe egiten omen zutelako. Herrian 50., 51. eta 52. urteetako lizentziak aurkitu dituzte, eta garai hartan 37,5 pezeta ordaintzen zuten, gaurko 300 euro (50.000 pezeta) inguru.

BERRI LABURRAK

10 ordu itsasoa galduta

ABENDUAREN 24an, Gabon egunean, Joxe Ramon Lakunzak eta Igor Arostegik 10 ordu egin zituzten itsasoa galduta. Arratsaldeko 16:15ean atera ziren itsasora, eta 17:30ean motorrak aberia izan zuten. Telefonoa ere hondatuta zuten eta Itsaspe eta Talaiaren artean geratu ziren, barratik 400 bat metro. Azkenean, Gurutze Gorriak atera behar izan zuten, Igor hanketan hozketa pixka bat zuela.

Gabon otarrak

ARKUPEK bezeroen artean zozketatutako bi otarren irabazleak Ruth Etxeberria eta Margarita Makazaga dira.

Futbol taldearen otarra, berriz, Mikel Rekareren-tzat izan da.

Karelako lan-poltsa

HYDRAk kiroldegian ordezkapenak egiteko eta astebukaeran ordu batzuk betetzeko lan-poltsa sortu nahi du. Sorosle eta zerbitzu anitzetako lanpostuetarako sortuko diren zerranda horiek beharrei aurre egiteko erabiliko dira. Curriculurak kiroldegira eraman behar dira otsaila baino lehen.

LOBETXU JAKITZEN

Eusko Gudari, 18 Telf. 943 83 00 07

REGAZATO

Etxeko helatuak eta kruasanak

San Nikolas, 17 Tfnoa: 943 13 17 47

ZUMINTZA

Ile apaldegia

manikura-pedikura-makilajea depilazio beroa eta epela

Tfnoa: 943 43 17 50

K A I U A

TABERNA

Anibarko Portua, 35
Tel. 943 83 40 54
20810 ORIO



BANKETXETAKO EROMENA. Abenduaren 20rik aurreraz igarri dute bezero kopuruaren iguera banketxeetan.

Eromena banketxeetan

EGUNERO HIRUREHUN LAGUNETIK gora —ohi baino ia ehun gehiago— pasa dira Kutxako leihatiletatik eta langileek aparteko ordu asko sartu behar izan dituzte. Itziar Azkargorta Kutxako zuzendariak esan digunez, *Jende ikaragarri ibili da eta operazioak ere konplexuagoak izan dira: bil hasiera izanik dirua ateratzera eta aldatzera etorri delako jendea, eta gu ere mantsuago ibili garelako, txanpona ezagutu arte.* Haurrak ere oporretan harrapatu ditu aldaketak, eta bezeroak banaka beharrezan hiru edo lauak etorri dira: seme-alabak eta el-

tzeitsuak hartuta, txanponak kontatzera. Txanponak bereizita eta ondo kontatuta ekarri geru, segituan ordaintzen dituzte; baina, bestela, Donostiara bidaltzen dituzte ondo kontatzera.

Kutxan esan digutenez, *Lehenengo pezeta zaharrak ere ekarri dizkigute, baina 500 eta 200 pezetako billeteak eta XIX. mendeko Luxenburogoko txanponak ere. Guk, balere, zirkulazioan dauden txanponak bakarrik hartzen ditugu, eta gainerakoeekin Espainiako Bankura joan behar da aldatzera.*

HANDIK ETA HEMENDIK

ANJEL LERTXUNDI

Idazlea

"Hizkuntza txiki batean dabilen idazleak zorion pixka bat badauka, horretaz kontzientea bada, behintzat, sortzeko garaian ez baitu hainbestearinoko tradizioaren zama (...) Hemendik eta handik hartzen du, askoz ere eklektikogoa da. Berak antolatzen du bere tradizioa. Hori abantaila handi bat da."

EGUNKARIA 2001/12/29



KAMEL ZIANI

Korrikalaria

"Entrenatzen ikusten ninduen Kortak, eta beti esaten zidan: Zu, arraunerako; utzizu korrika egiteari!"

"Diego Garciak irakatsi zidan ez presarik izaten. Esaten zidan lasaitzeko; iritsi behar badu, iritsiko dela nire eguna."

ARGIA 2002/01/06

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TFOREKAK - BALBUJA

Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

AENOR R ISO 9002
Eskerako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk
telef: 943 83 08 12

Argazkariaren honen edizioa laguntzailer

kutxa
zuri esker

Lizaso
Utzarriak

Eusko Gudari, 46 Tlf: 943 83 07 81
Alto Lertxundi, 6 Tlf: 943 83 07 81

RAMIRO
argazkilaria
943 83 10 48



IZOTZ GAIAN
Bi ahizpak
gustura aritzen
dira izotz
pistan azalean.

IRRISTAKETA ARTISTIKOA

Lanean eta lehian gustura Txuri-Urdinean

■ *Nora eta Eider Etxeberriak lana eta kirola batu dituzte*

TXURI-URDIN IZOTZ pistan aritzen dira Nora eta Eider Etxeberria, Txomin Etxeberria oriotarraren alabak. Oso gazte zirela hasi ziren patinatzen *bobby* moduan; baina, urte batzuk pasa ondoren, irristaketa artistikoko taldean sartu ziren Txuri-Berri klubean. Hurrezkeroko txapelketa eta gala askotan ibili dira.

TXAPELKETA UGAN

2001ean, Nora Euskadiko txapelduna izan zen, 21 urterekin, eta 5. postua lortu zuen lehen mailako Espainiako Txapelketan. Izan ere, 1989az geroztik, 1991n izan ezak, urtero izan da Euskadiko txapelduna hainbat mailatan. Eider sei aldiz izan da Euskadiko txapelduna, eta 2001ean ere aritu zen 2. mailan; baina, zoritxarrez, ez zen podiumera igo. Aurten, Espainiako klubaren arteko txapelketa izango dute eta Euskadiko txapelketa martxoan aldera.

IZOTZ JAUREGIAN LANEAN

Nora eta Eider lanean dabilta Txuri-Urdinean. Norak, irakasle ikasketak bukatu bitartean, haur txikiei ikastaroak ematen hasi zen arratsaldeetan. Horrekin jarraitzen du, eta orain goizetan ere txangoetan etortzen diren haurrekin aritzen da. Eider batxilergoko lehen urteko ikasketak egiten ari da, eta orain dela gutxi hasi da monitore lanetan, jendeari laguntzen eta haur txikiei erakusten eta zaintzen.

Bi ahizpak egunero entrenatzen dira pistan, Jonathan Levers ingelesarekin, eta entrenamendu fisikoa astean bi aldiz egiten dute. *Txapelketa mailako pista gutxi dade Espainian eta bidaia luzeak egin behar ditugu. Nekagarria izaten da eta askotan gaua ere bertan pasa behar izaten dugu. Hala ere, pozik nago irristaketa eta umeekin lan egiteko aukera batu ditudalako esan digu Norak.*

PILOTA

Pilota txapelketa pilota bigunarekin

AURRENEKO aldiz, eskuz binakako txapelketa pilota bigunarekin antolatu du Orioko pilota elkarteak. Hamasei urtetik gorako oriotarrentzat da eta parte hartzeko K2 edo Gabon tabernan eman behar da izena, hilaren 30erako. Gero, parte hartzaile guztiak gonbidatuta daude otsailaren 2an, 12:00etan Kultur etxean izango den bilera irekiera joateko.

Pilotari gazteak entrenatzen

JESUS Mari Urretabizkaia erremonteko jokalaria profesionala laster hasiko da monitore lanean 7-14 urte bitarteko gazteak entrenatzen, iaz bezala. 130 bat gazte arituko dira herriko txapelketan lehiatzeko gogoz.

Bestalde, 1985az geroztik Oriok ez du parte hartu herri arteko txapelketetan eta Pilota Elkarteak herririo sartzea du helburu. Dagoeneko entrenatzen hasi dira, hiru kategoriatan: lauzpabost lide bakoitzean.

Pilota Aian

AIAKO Kirol Elkarteak bikotea, Eizmendi eta Manteola, Gipuzkoako Pala Txapelketan 10. geratu zen abenduaren 20an Aian jokatu zen partidaren ostean. Udaberrikoa urtarrilaren 11n hasiko da Aian arratsaldeko 20:00etan.

Gure Txoko
Auzoaren Txoko

ODITZ

FORMA ZABALEKO DINETAKOAN
GIZON ETA EMAKUMEENTZAT

943 83 00 89

Carmen eta Txomin

Arraindegia

Tel. 943 83 05 37 - 943 83 27 47

BEBE JETETKEX

OLIDEN

Menú Diario • Comuniones
Badas • Reuniones Sociales

Eguneroko Menua • Jaurtitzek
Eskantzak • Bilketak

Ortziak Auzoa • 20810 ORIO
Tel. 943 13 34 51 - 943 83 08 83

ARRAUNA

Orio eta Castro Belodromoan?

URTERO Euskadiko Sei Orduak bizikleta festa izaten da Belodromoan otsailen, eta horrekin batera beste kirol emaldi asko ere antolatzen dira. Zurrumurruak badabilta esanez Castroko eta Orioko arraunlariak lehia jarriko direla ergometroko frogan, errebantxo moduan. Orain 5 bat urte utzi zioten arraunlarien arteko froga egiteari, eta, berriro hastekotan, lehia bizi-bizia antolatu nahi omen dute.

Bestalde, Jose Antonio Olaskoaga *Aizperrok* Bermeon jarraituko du aurten, eta Santiago Zabaleta oriotarra ere hango traineruan arituko da.

ARETO FUTBOLA

Karelan jokatzeko baldintzak

ORAIN arte Orioko futbito partidak Lasarten edota Zarautzen jokatu dira, Orion pista egokirik ez baita izan. Momentu honetan ordezkariak bilerak egiten ari dira Udalarekin, Karela kiroldegia erabiltzeko baldintzak zehazteko.



IZERDIA BOTATZEN. Saltoka ibiltzeko ankera izango da edozeinentzat Saltoka aerobik maratokia.

AEROBIKA

Aerobik maratokia euskaraz

UROLA Kostako Udal Elkarteak *Saltoka* aerobik maratokia antolatu du Getariako Sahatsaga kiroldegian urtarrilaren 19an *Kirola Euskaraz* programaren barruan, kirola eta euskara uztartzeko asmoz ekitaldi atsegini batean.

Maratokia ordubeteko bisaiotan antolatu da: batean, aerobikean aritzeko eta bestean, *irrepean*. Atal bakoitzean 20 minutuko saiok egingo dira, irakaslez aldatuz. 17:00etan hasiko da *Saltoka* maratokia, haina parte hartzaileek ordu erdi lehenago joan behar dute Getariako kiroldegira. Izena aldeztu aurretik ematea komeni da eta, horretarako, 3 euro ordaindu behar dira

Kutxako kontu honetan, urtarrilaren 17a baino lehen: 2101 0076 56 0010097 475. Egun berean ere eman daiteke izena kiroldegian; hori bai, 5 euro ordainduta. Parte hartzaileen artean sariak zozketatuko dira: eskualdeko denda batean erositako kirol materiala eta aerobikeko liburuak euskaraz.

Gimnasiako federazioak antolatutako 1. aerobik zirkuitaren aurreneko ekitaldia izango da *Saltoka*. Edozein zalantza argitzeko edo informazio gehiago lortzeko, Jose Inazio Ato-rasagastirekin hitz egin behar da, telefono honetara deituta: 607 28 04 05.

K2
taberna

Zeuk bilatzen duzun giroa!!

Zarautz
AUTODESKOLA

Zarautz Zigorria Kalea 35-1. -pk. 20.600- Gipuzkoa-
Orio Aita Lertxundi 46 -pk. 20.910-
Tel. Zarautz 943 83 35 35 Fax: 943 83 33 47
Orio 943 835 119 e-posta: zarautz@zarautz.com

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta errezintak

Telefonoa: 943 831236 Euzko Gudar. 5

ASADOR
XIXARIO

Euzko Gudarria Kalea, 2
Tel. 943 839019 - ORIO

LTXERRI
Jatetxea

Tfnoa: 943 83 07 62

AHOKULARITZA
Fiscalia, laborala, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

Kinilabenda - Une arropa

Argine Arropa Surtza
Euzko Gudarria, 9 - Tel. 942 12 48 89 - ORO

NIRE HONETAN

'r' maitea

Amaia lotsatu egiten da gaztelaniaz hasi eta aurrean duena euskarara pasatzen denean. Biak euskaldunak direla konturatu da egiten dio hori solaskideak, baina amorrua ematen dio Amaia. Ez zaio batere gustatzen bere bertakotasuna ahoskeran nabarmentzea; guxtiago sentitzen da, ikasgabeagoa.

Zergatik horrelako lotsa? Hor nonbait bere gogoetan euskararen balioa okerreko bidetik joan zaio. Ez al da zeharo normala, — eta beharrezkoa, gainera — norberaren nortasuna, kultura, jaso duena, hizkeran ere agertzea? Zer izango nintzateke ni zuek bezala hitz egingo banu? Ez nintzateke Pat izango, ez eskoziarra. Nolako ahoskera du Tatiana Naidenova errusiarrek, ale honetan Alako leihoa idatzi duenak? Eta Graeme Millar eskoziarrak eta Marko Trobevsek eslobeniarrek, KARKARA jasotzen duten bi harpidedunek, nola ahoskatuko ote dituzte hain arreta handiz irakurtzen dituzten esaldiak?

Ez gaitzen lotsa ama hizkuntzak ematen digun ahoskeratik. Ospa dezagun gure aberastasuna, hizkuntza bat baino gehiago dakigulako. Euskaldunok eta eskoziarrak — bi taldeetan kokatzen baitut nire burua — baita, ziur aski, errusiarrek eta eslobeniarrek ere, ezaugarri nabarmena komuneari dugunez, 'r' sendoa alegia, honako hau opa dizuet:

Urrrte berrri on!

PAT COWIE

Nikaragua-Nikaraguita

ENEKO DORRONSORO



Inoiz baino konbentzituago nago Udalek ematen dugun laguntzaren beharraz

Orioko Udalak, urteko aurrekontuetan, 3. mundurako diru laguntza emateko zenbateko bat aurreikasten du: 2001. urtean, esaterako, 2.000.000 pezeta (12.020,24 euro). Dirua hainbat proiektu finantzatzeko erabiltzen da: %50 Euskal Fondoko proiektuetara bideratzen da, %40 Oriazutz eta Aita Lertxundi fundazioetara eta beste %10a urtean zehar gerta daitezkeen larrialdietarako gordetzen da.

Euskal Fondoak, Euskal Herriko 65 bat udal entitatez osatutako elkarteak da eta bertako partaide da Orioko Udala 2000. urteaz geroztik. Elkartearen bitartez, azken bi urteotan, lankidetzaz egitasmo ugari finantzatu ditu Udalak: Udal garapenerako plana Nikaraguako El Rama herrian, etxebizitza ekonomikoak eraikitzea Kuban, garratio azpiegiturarako laguntza Saharan...

Proiektuak sustatzen laguntzeaz gain, Euskal Fondoak Erdialdeko Amerikako herrialde batzuetan egiten diren hauteskundeetan begirale lanak ere egiten ditu. Iazko azaroaren 4an, esate batera, Nikaraguan egin ziren hauteskunde presidentzialak aprobetsatuz, begirale lanak eta Euskal Fondoak herrialde hartan dituen lankidetzaz egitasmoen jarraipen zuzena egiteaz gain, nikaraguarrek bizi duten egoera penagarria ezagutzeko aukera izan nuen beste udal batzuetako zinegotziekin batera.

Nikaragua, Erdialdeko Amerikako herrialde txiroenetakoa da: gerratea bukatu berria da (1990. urtean), 5.100.000 biztanle ditu eta horietatik 3.700.000 pobrezian bizi dira, nahiz eta Arnaldo Aleman orain arteko presidentea liberalak urtean 120.000.000 pezetako soldata jaso eta ministroak, herriz, 60.000.000 pezetakoa. Azken hamaika urteetan biztanleria %20,7 hazi da eta 90eko hamarkadan 1.000.000 pertsonak emigratu dute Costa Ricara eta Estatu Batuetara. Ustelkeria, herriz, eguneroko

ogia bilakatu da. Herrialde honen egoera okertu baino ez da egin, liberalak gobernua daudenetik; hau da, 1990. urteaz geroztik. Gainera, ezbehar ugari jasan du azken boladan: Mich hurakana, lurrikara... Gaur egun, herriz, lehortearen ondorioz, izugarritzko gosetea dago hainbat zonatan. Egoera benetan larria Nikaraguak bizi duena.

Lehen, Euskal Fondoak eta honen antzerako elkarteek emandako laguntza beharrezkoa bazuten, gaur egun, are gehiago. Izan ere, laguntza hauen bitartez, besteak beste, Somoto-n kafe organikoak berritu eta ekoizteko aukera dute, Tipitapa-n agintari, funtzionario eta liderrak prestatzen ari dira, eta San Carlos-ko gotor-

lekua zaharberritzeko eta El Rama-n udal garapenerako planak martxan daude.

Ospatu berri diren hauteskunde presidentzialetan garaile izan den Bolaños hautagai liberalak ez du, ez, lan samurra izango: orain arte gobernuakideek kobratu izan dituzten makrosoldatak egokita, hankaz gora dagoen herria berregituratu, ustelkeria deuseztatu... Gogoz egin beharko du lan Nikaragua aurrera atera nahi badu. Ezin utzi aipatu gabe, bizi duten egoera bizi eta gero, nikaraguarrek hauteskundeetan izan duten parte-hartzea: %92, hain zuzen ere; inoiz inon ezagutu den parte-hartze handienetakoa. Txalotzekoa beren jarrera; badugu zer ikasia.

Aipamen berezia egin nahi nuke Euskal Fondoko teknikariek egiten duten lan isilaz eta, batik bat, Elkartek Managuan duen euskal ordezkariak egiten duenaz, bera gabe ezinezkoa bailitzateke gaur egun bultzatzen ditugun lankidetzaz egitasmoak bideratzea.

Bukatzeko esan nahi dut, Nikaraguan izan ez geroztik, inoiz baino konbentzituagoa naogoela Udaletatik ematen diegun laguntzaren beharraz.

* Bertako babarrun eta haragiak
* Etxeko sukalde gero eta abseginu
* Haurrentzako menu berezia eta jolastekua

KANUA
RESTAURANT

Gozategi Eparantzeta, 11 - AIA
TEL. 943 81 43 22

Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.
Ogiartekoak, plater konbinatuak...

ANTILLA
RESTAURANT

Berretsu zabalik!!!

GIRO ONA!!!



LAURGAINEN. *Aiako Laurgainen dagoen Ibarrola behea baserriko Nikolas Aierzak meza bertin eman zueneko argazkia da, 1948ko uztailean Ilekosa. Bebea ilaran ezkerreko bigarrena don Antonino da, hirugarrena don Jose Mendizabal; orlidan Nikolas Aierza, garasoa artean; burrena don Sotero eta burrena don Luis Etxeberria. Goian agertzen dira, bitseak beste, don Joakin Arrotegi, Alberto Olliden kantaria eta Patxi Danbolu organo jolea.*

Orioko apaizak

Hiru Erregeak bezala ekialdetik etorri zitzaigun, Astigarragatik; Andres Garmendia du izena eta Orioko elizako bikarioa da 1980az geroztik. Oriotarrok suerte hori daukagu; baina Andresek, don Andresek, 70 urte ditu eta laster erretiroa hartzea dagokio. Zeinek ordezkatuko ote du? Hori ez dakigu, baina badakiguna da zein izan ziren leku horretan bere aurretik, joan den mendean, XX.ean. Bost apaizen artean bete zuten XX. gizaldi osoko Orioko bikarioria: Migel Ibargoien, Migel Mujika, Jose Maria Astigarraga, Bitorio Unzetabarrenetxea eta Andres Garmendia.

INAKE ITURAIN

Jakina, ez dira horiek izan XX. mendeko Orioko apaiz bakarrak; bost horiek bikarioak izan dira. Haiekin batera beste apaiz asko izan ditugu Orión. Kanpotik etorriak, bertan jaioak, Orión jardundakoak eta kanpora joandakoak ere bai. Batzuk ezagun askoak, gainera; ezagunenak Aita Lertzundi eta Juan Zaragueta.

Aita Lertzundi misiolari ibili zen Marokoko lurretan eta osasun ahuleko gizona izanagatik, lan izugarri eta harrigarriak egin zituen Afrikako lurralde hartan, eta Orioko herriak ondo merezitako omenaldia egin zion 1996an, bere heriotzaren mendeurrenean, don Andresek eta Udalak antolatuta. Juan Zaragueta, filosofo eta katedraluna, oso gizon jakintsua izan zen eta filosofia alorreko liburu asko argitaratu zituen, Aita

Lertzundik herriko kale bati eman zion izena eta Juan Zaragueta, berriz, herriko eskolari, 1972an, hil baino bi urte lehenago.

BI DON MIGEL MENDE HASIERAN

XXI. mendeari don Andresek eman dio ongi etorria Orioko parrokiari; mende bete lehenago oriotar bat izan zen XIX. gizaldiari agur esan ziona: Migel Frantzisko Ibargoien, *Kojua*. Don Migel *akal*atarren kastakoa zen eta 1896tik 1916an hil zen arte izan zen Orioko bikario. Garai hartan beste oriotar bat Zumaian izan zen apaiz, Santos Orbeagozo, balearen bertso famatuak idatzi zituen.

Don Migel ordezkatzera don Migel etorri zen, Hondarribiatik, don Migel Mujika. Gizon hau 1916tik 1952an hil zen arte



DON MIGEL Ibarraen Mendizabal, apaiza 1852ko urriaren 4an jaio zen Orion; Kaina deitzen zioten eta Akañatarren kastakoa zen; orain dela 100 urte bera zen Orioko bikarioa.

izan zen Orioko bikarioa. Don Migel hau oso arraun zalea behar zuten, baina hondarribarra, eta oriotarrek bandera irabazi eta mutilak ongi etorrria egin behar zitzaizenean, batzuek elizako kanpaiak joka jarri nahi izaten zituzten, baina don Migelek nahi ez eta ez omen zien utzen.

Don Migel Mujikaren garaian enaiki zen bikario etxea 1928an, zimitorio nagusian dagoen etxea; obrak 39.066,89 pezeta balio izan zuen. Baina etxe hura erosi, aurreko don Migelek egin zuen, 2.500 pezetan. Etxe zaharra omen zen erosi zuenean eta heste batek han taberna jartzeko asmoa zuelako eta elizaren ondoan taberna ez egoteagatik erosi zuen etxea.

Koruko organoa herritu eta albo baterik erdira eramanean, orain dagoen lekura, 1935ean egin zuten. Berrikuntza hartan jakin genuen —inskripzio batean irakurrita— organoa 1858an egina dela, eta orduan don Juan Antonio Makazaga zela Orioko bikario; Maria Maestraren amaren osaha omen zen bera.

Mujikarekin batera Jose Antonio Mendizabal mutrikuarra aritu zen laguntzaile, koadjutore. Azken honek apaiz bizitza osoa Orion eman

zuen eta, herriko zaharrek diotenez, oso gizon gogorra zen, *makina bat neska ateratzen negarrez kongregaziotik (Mariaren alabena), mutilekin dantzatzen zuela eta.*

Migel Mujika hil zenean Jose Maria Astigarraga zumaierak ordezkatu zuen. Don Jose Mariak arte gutsi eman zituen bikario Orion, sei besterik ez: 1952tik 1958ko ekainera, izan ere orduan Zarautza joan zen, eta han izan zen apaiz, erretiratu arte. Don Jose Mariaren garaian eraberritu

egin zuten eliza: paretetako pintura kendu, harria agerian utziz; bobedak garbitu; alboetako aldareak kendu eta dekorazioa aldatu. Bere garaitik aipagarria da, baita ere, mutil guzteen 'Luistarrak' kongregazioa eta neska gazteena, 'Mariaren alabak', bultzatu zituela eta indar handia hartu zutela Orioko gazteen artean.

DON BITORIOREN GARAIA

Don Bitorio Unzetabarrenek ordezkatu zuen don Jose Maria, hura Zarautza joan zenean. Bitorio Eibarren jaio zen 1909an eta 1935ean apaiztu. Orioko parrokiaren ardura 1958an hartu zuen eta horretan jardun zen 1980an erretiroa hartu zuen arte. Hala ere, Orion segitu zuen bizitzen eta hemen hil zen 1994ko abenduaren 8an.

Pasa berria dugun Hiru Erregeen bezperako kabalgata berak sortu zuen 1962an; berak lortu zituen horretarako behar ziren jantziak, atabalak eta gainontzekoak. Hurrengo urtean, 1963an, elizan orain dauden bankuak jarri zituen, aulki guztiak kenduta.

Don Bitorioren garaian beste hainbat apaiz ere izan ziren Orion: Antonino Agirre oriotarra, Sotero Plazaola

azkoitiarra, Juan Kruz Juaristi zarautzarra, Jose Etxeberria tolosarra eta Jose Antonio Ezeiza mutrikuarra.

Lehen laguntzaile edo koadjutore don Antonino Agirre Zubizarreta izan zuen. Antonino 1921ean jaio zen, 1947an apaiztu eta Orion hainbat urte eman ondoren, Aginagara joan zen, don Sotero ordezkatzera. Orain Zarautzen bizi da, erretiraturat. Don Sotero oso apaiz euskaltzalea zen eta lanean aritu zen bete-betean Orioko hainbat gazterekin batera, herriko ikastolaren sorreran. Honela idatzi zuen KARKARAN Arantxa Adurizek don Soteroaren gainean, hura hil zenean: *Herria zen zerbitzaria zen, maite zuen berria eta garbi zuen berri baten oinarri nagusia bizkuntza dela. Bere inguruan taldeak osatzeko abalmen berezia zuen, beti zegoen herriarekin batera eta bere egiten zituen haren kezkek eta beharrak. Herrietako bat izan zen Ikastola, bera izan zen sortzaile eta bultzatzaile nagusia.* Beste neurri batean, don Jose Etxeberria ere aritu zen Ikastolaren sorrerako lan haietan. Don Jose honek handik urte batzuetara utzi egin zuen apaizgoia. Don Juan Kruz Juaristik urte gutxi

ORIOKO elizako zimitorioan, don Antonino Agirre eta don Jose Maria Astigarraga, berriko hainbat gizonekin.



egin zituen Orion apaiz, izan ere misiolari joan baitzen Ruandara. Bide hori bera hartu zuen Demetrio Esnaolak ere; Ruandan izan zen, misiolari; baina apaizgoa utzi eta Oriora etorrita, Ikastolan irakasle izan zen lazkaotarra.

1960ko hamarkadan apaiz asko zegoen, eta apaizak ez ezik apaizgaiak ere bai seminarioetan. Baina Francoren diktaduraren azken urteetako giro politiko nahasiak eragin handia izan zuen erlijiosoan artean. Orio ere adibide ona da: garai hartan hamar bat gazte oriotar izango ziren, apaiz egiteko bidea urratzen; urte gutxian denek utzi egin zuten.

DON ANDRES GURE ARTERA

Gaur egun don Andres dugu Orioko bikario. Andres Garmendia Astigarragan jaio zen 1931n; apaiz-ikasketak Saturraran, Gasteiz eta Donostiako seminarioetan egin ondoren, 1956an apaiztu zen. Lehenengo zortzi urteak Nuarbeoko parrokian eman zituen, bikario. Gero lau urte Saturrango seminarioan administratzaile; 1968tik 1979a arte Donostiako seminarioan; besteak beste, matematika irakasle, hango ikastetxean. Urte hartan, 1979an, Oriora etorri zen eta urte betez don Bitorioren laguntzaile izan ondoren, 1980ko San Pedro egunean bikario kargua hartu zuen. Geroztik gure artean dira Andres, bere irribarre eta

bere alaitasun kutsagarria. Laguntzaile don Jesus Iturrospe oñatiarra du, 1983z geroztik.

Bikario moduan, lanik aipagarrienetakoa elizako teitlatua berritzea izan da. Apaiz lanaz aparte oso gustukoa du elizaren ondare artistiko-kulturala erakustea. Honela idatzi zuten KARKARAN Aranzadiko lagunaren elkarteko 35 kidek, Oriora egindako bisitaren ondoren: *Elizako arkitepean elkartu ginen Don Andresek; beso zabalik hartu gintuen apaizak. Txantxa artean elizaren eraikuntzaren eta estilearen berri eman zigun; arte-lanak, lurrean dauden bilobiak, kanpandorrea, erlojua eta organua erakutsi zizkigun. Organuaren doinuaz gozatzeko aukera ere izan genuen, don Andresek berak jota. Gero, San Martingo ermita erakutsi ondoren agertu gintuen, Orioko apaiz jator eta umoretsuak.*

BESTE APAIZ ORIOTAR BATZUK

Orioko bikarioa ez da Orion jaioa, baina badira Orion jaio-takoak kanpoan ibili direnak edo dabilzanak: don Joakin Arostegi gerrari ihesi joanda, Baionan apaiztu zen; Santander aldean zigor moduan atzerriaratu egon ondoren, Itziarren izan zen apaiz eta gero Arroako bikario izan zen, erretiratu arte. Gaur egun Zarautzen bizi da eta urtarilaren 10ean 88 urte bete ditu (zuzionak!); baina oso osasun ona du eta oraindik ere egu-



DON JOAKIN Arostegi, apaiz abertzale eta eskaltzale izateaz gain, arriaren zalea ere bazen. Argoskian Itziarren agertzen da; oriotarrek, jatorri Claudio Gorriza zutela, irabazitako bandera bedeinkatzen.

nero ematen du meza San Pelajoko ermitan.

Beste apaiz oriotar bat, Fabian Loidi, Añorgan jaio zen 1907an, baina txikitik Oriora etorri eta hemen eman zuen gaztaroa. 1935ean apaiztu eta gerran abertzaleen handoan ihiltzeagatik Bizkaiko Enkarterri behartu zuten; 1945erik aurrera Igeldoko bikario izan zen, 1985ean hil zen arte. Fabian bertsolari eta poeta handia izan zen.

Antonio Oteiza, Jorge artistaren anaia bat ere, kaputinoa da.

Orain apaiz gazte oriotarrik ez dago, ez badugu, behintzat, oriotartzat jotzen Aretxabaleto Inaki Sarasua Maritxalar, Jose Mari eta Mertxe oriotarren seme zaharrena. Inakik 37 urte ditu eta Donostiako Marianistetan lan egiten du, irakasle, eta bertan bizi da.


ORIOKO parrokiako bikarioak XX. mendean

Izen-abizenak	Non jalo	Jaio-apaiztu-hil	Bikario Orion
Miguel Frantzisko Ibargoin Mutiozabal	Orio	1852-1877-1916	1896-1916
Miguel Mujika Olano	Hondarribia	1886 - 1952	1916-1952
Jose Maria Astigarraga Egaña	Zumaia	1915-1939-1958	1952-1958
Bitorio Unzetabarrenetxea Arrizabalaga	Eibar	1909-1935-1994	1958-1980
Andres Garmendia Aldabalde	Astigarraga	1931-1956-	1980-



Don Andres Garmendia

AIAKO berri



BAKE EPAILEA LANERAN. Bizente Zubaga bake epailea Aiako udaletzeko bulegoan lanean.

Bake epaitegiak

■ *Aia, Getaria eta Zestoako Bake Epaitegiak elkartzeko dira*

AIAKO UDALAK, 2001EKO abenduaren 12an egindako udalbatzarrean, Getaria, Zestoa eta Aiako Bake Epaitegiak elkartzeko akordioa onartu zuten aho batez.

Zazpi mila biztanle baino gehiago dituzten herriek, Bake Epaitegiko langileak badituzte. Herri txikietan, aldiz, Bake Epailea badago baina bere lana nahiko murrizta da. Bake Epaitegiko hainbat eginkizun —esate baterako, zizazioak, galdeketak, zertifikatuak...— udaleko langileen zeregin bihurtu dira.

Orain dela hiru bat urte, Aiako Udalak Bake Epaitegiko zereginak gero eta dedikazio han-

diagoa eskatzen zutela ikusita, inguruko herriengana jo zuen eta elkartzeko eskaera egin zien. Elkartzea onartu duten beste herriak Getaria eta Zestoa dira. Herri horiekin elkartzuta, zazpi mila biztanle izatera iritsiko dira, eta, beraz, beteko dituzte Eusko Jaurlaritzak Bake Epaitegiko langileak izendatzeko jartzen dituen baldintzak. Akordioaren berri Eusko Jaurlaritzari eman eta haren oniritziarekin, udaberri alderako sistema berria martxan jarri nahi dute hiru udalek. Hala balitz, Bake Epaitegiak langile berriak edukiko ditu, egutegi eta ordutegi zehatzekin.

Laguntzaileak

ONETSINE Arrizabalaga oriotarra KARKARArentzako laguntzaile berri bila ibili da Aiako kaskoan, San Pedro auzoan eta Santio Errekan, eta 18 laguntzaile berri lortu ditu.

Baserrietara ez zen iritsi, baina baserrietan bizi direnekin harremanetan jarriko gara laster KARKARAKO kideak laguntzaile izateko aukera emateko.

Udaberriko txapelketa

GIPUZKOAKO Federazioak txapelketa antolatu du gizonetzkoentzat, paleta gornaz. Aian jokatu den lehen partida urtarrilaren 13an izango da: Aiako KE Loiolatarra KE-ren aurka. Hurrengo urtarrilaren 27rako dago iragarritar: Aiako KE Kurpil Kirola-ren aurka.

Errolda

AZAROAREN erdialdean etxebizitza, lokal eta biztanleen errolda egiten Eneko Balerdi aritu da etxex etxe.

Errolda galdeketa-epaia beteeta bada ere, datuak osatzearren epea luzatu egin dute urtarrilaren 14a arte.

INAZIO MANTEROLA ETA SEMEAK

ARRAINA ETA MARISKOA

Ubegun auzoa AIA • Telfs. (943) 13 10 09 • Fax 13 39 52
8 postakutxa • 20810 ORIO



Bisagaren Industria Teknikoa, S.A.

Era guztietako bisagrak
Kazolatan gordetako bisagrak
Kristalezko ahoen bisagrak
Bisagra automatikoak, etab.

Aranguren Industrialek - Santiago auzoa
20800 Aia (Gipuzkoa)
Tel. 943 83 05 08 - 1029 Orrio - Telefax. 943 13 39 62

JOXEPA ETXEBERRIA, ANDATZAKO TELLERIAKOA

‘Utzi egin beharko diot josteari’

Joxepa igande goizetan Arizterrazura joaten da. Bertan kafesne bat hartuz, egunkaria edo Kar-kara irakurtzen du eta kontu batzuk esan ere bai. Laurogeita zazpi urte bete berriak ditu eta elizan serora lanetan aritu izan da urte askoan; umeei dotrina eta eskola erakutsi die, eta inguruko auzokideei arropa konpontzen dien jostuna ere bada.

GABIÑE AZPIROZ

Non ikasi zenuen josten?

Aiako kaskoan bizi ziren Jose M. Alpagaterrenean nintzen apopilo, eta Joxpantoni-rekin aritu nintzen josten ikasten bi urteetan. Bost urte ni-tuela, aroez trintxaren epai-rekin belauz hezurra ebaki nuen. Harrezkero, operatu ninduten arren, hanka ez zidaten bere onean jarri. Beraz, gurasoek nire bizimodua aurrera ateratzeko gai izan nendin, hainbat gauza ikasteko aukera eman zidaten; besteak beste, josten ikasteko. Donostiana ere josten ikastera joan nintzen hiru hilabetez.

Josteari utziko omen diozu...

17 urterekin hasi nintzen. Orduan 320 pezetan erositako Alfa makina erabiltzen dut oraindik. Andatzan hamasei familiarentzat behinik behin aritu naiz arropak konpontzen, barrenak hartu, kremailera josi... Baina orain ez naiz



JOXEPA ETXEBERRIA. Andatzako eliz atarian, meza aurretik.

gauza: eskuak gogortu zaizkit, titareak ihes egiten dit... kanpoko lanari, behintzat, utzi egin beharko diot.

Eskola ere erakusten zenien umeei?

Hamaika urtez aritu nintzen etxean, Tellerian, umeei eskola erakusten. Irakurtzen eta idazten erakusten nien.

Andatzako uméak etortzen al ziren zuregana ikastera?

Andatzatik bakarrik, ez; garai hartan Agerre Buru basteritik, Manterolatik, Arantzasarritik, Sarobetik, inguru guztietatik etortzen ziren. Maisu-maestreak bazeuden arren, niregana bidaltzen zituzten uméak, Goikoetxetik,

Aialdeburutik...

Zer erakusten zenien umeei?

Irakurtzen, idazten, dotrina, batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak; hau da, *kuentakorrienteak* erakusten nizkien. Jaunartzea egiteko zeuden uméak etortzen ziren dotrina ikastera batik bat, baina gainontzekoak ere erakusten nizkien.

Non ikasi zenuen zuk?

Aiako kaskoan orduan mojak egoten ziren. Madre Javierak gau eskolak antolatzen zituen neskentzat, eta bertara bi urtez joanda ikasi nuen zer-bait. *Portitsaneko* Paulina zenak ere laguntzen zidan ikasten.

Noiz hasi zinen eskolak ematen?

1937. urtean hasi nintzen eskolak ematen eta hamaika urtez aritu nintzen, Andatzan Eskola nazionalak ireki zituzten arte. Orduan don Hilario erretoreak dotrina ematen segitzeko eskatu zidan, eta horretan aritu nintzen astean bi egunetan.

Makina bat ume pasako ziren zure eskuetatik?

Bai, ehunka. 1937. urtean hasi nintzen eskolak ematen eta gero dotrina erakusten pasa ditudanak, osotara berrogeita hamasei urte eman ditut umeei erakusten.

Serora lanak ere zure gain egon dira?

Dotrina erakustearen kargua hartzearekin batera elizako eginbeharrak ere nire gain geratu ziren.

Zer eginkizun betetzen zenituen serora lanetan?

Meza hasterako dema prest jarri, kanpaiak jo, bataioak zirenean dema prest utzi... Elizako gorabehera guztiak nire gain zeuden. Apaizak ere eza-gutu ditut mordoxka bat: don Lorenzo, don Severo, don Juan, don Aniceto, don Julian, don Jose Inazio, don Jesus Jauregi, don Ramon, don Jesus, don Antonio eta don Manuel.

Nor da zure ondorengoa?

Pepi, Agerresorotxikikoa. Urte betez biok aritu ginen elizako prestaketetan, berak martxa hartu arte. Gaur egun, Pepi eliza txukuntzera doanean, hari lagun egitera joaten naiz, kontu kontari hasten naizenean nahastaraziko badut ere.

Eguberri jaiak Errusian

TATIANA NAIDENOVA

Egutegi ofiziala Errusian ere gregorianoa da. Baina eliza ortodoxoak bere santutegia egutegi julianoarekin ospatzen jarraitzen du. Horregatik, Eguberri eguna urtarrilaren 7an ospatzen da han.

Urteko jairik garrantzitsuena Errusian Urte Berriaren sarre-rakoa izan da beti. Jai horren sinbolo nagusia pinua da. Ia familia guztietan jartzen da, eta umeei parte hartze handia dute.

Urtezahar gauean egiten dira opariak; umeentzat pinuaren azpian edo galtzerdian ezkutatuta egoten dira. Haurrentzat oporrak Urtezahar egunean hasten dira, eta hamar bat egun irauten dute.

Errusian Errege eguna ez da ospatzen, baina umeentzat dibertimendurik ez da faltatzen. Egunero antzerki eta zirkuetan oso ikuskizun polit eta dibertigarriak antolatzen dituzte, eta ikuskizunen ondoren haurrek opariak jasotzen dituzte.

Jaietako pertsonaia nagusiak bi dira: Yet Moroz (Izotzetako Aitona) eta bere iloba Snegurotxka (Elurrezko neskatxa). Aitona Papa Noelen antzekoa da Yet Moroz; berokia luzeagoa du eta eskuan makila magikoa darama.

Urtezaharra batzuek familian ospatzen dute; baina beste askok –batez ere, gazteek– lagunekin. Gazteei zarata, alaitasuna eta barre algarak gustatzen zaizkie, eta horregatik, askotan, kalean ibiltzen dira berandu arte, kantatzen eta dantzatzen. Moskun, adibidez, askok urte berriaren sarrera Plaza Gorrian ospatzen dute eta, kanpaiak jotzean, xanpaina edan eta elkarri musu ematen diote.

Errusiar sineskera batek dioen bezala, batek urteari hasiera nola ematen dion, hala igaroko du urtea. Espero dut urte berria oso ona eta zoriontsua izatea guztiontzat.

AIAKO TORO ETXERAK



AIAKO UDALETXEA

1852. urtean udaletxea berritza erabaki zuten. Egin ziren aldaketen artean: gelak egokitzea bilerak egiteko eta alguazilarentzat etxebizitza prestatzea beheko solairuan. Lanaren ardura Vicente de Unanue arkitekto tolosarrak izan zuen. Bukatzean, 1854. urtean, etxea aseguru egin zen "por 40.000 reales de vellón". Arkitekto bera izan zen 1840. urtean kanposantua eta hango kapera egin zituena.

AUTOAK AUKERA ONEAN

AIA ORIO

Telefonoa: 943 13 04 38

Itzala
Taberna

Kartetan jokatzeko proposa

Tel. 943 83 12 59

LURDES
RESTORANTE

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

ITZIAR

Kirolak

☎ 943 83 31 03

IKASLEAK idazle



MAIALEN MURGIENDO

Iragarkiak telebistan

Telebistako iragarkiei arreta jarritz gero, denok ohartzen gara, arropa, jakiak edo beste zerbait saldu behar denean telebistak erdugarriak erabiltzen dituela. Bai, noizbait denok sentitu izan gara telebistako iragarkiekin engainatuak (batez ere bokitari, erregei eskatzeko zerrenda egiteko orduan) baina, zenbateraino sentitu izan gara engainatuak?

Beti pentsatu izan dugu mutil/neska lagun eder bat edukitzea; hau da, iragarkietan agertzen diren moduko bikote bat edukitzea. Hori horrela izanik, askotan ez diegu saftzen ari diren produktuei kasurik egiten, eta hanka barruraino sartzean ohartzen gara egindako kalteaz. Baina, horrelako gizonzko eta emakumezko ereduak ikusita, nola ez gara, ba, haiek bezalakoak izaten ahaleginduko?

Hori gutxi balitz, gizonzko eta emakumezko horiek biluzik agertzen dira, eta horrek lehen baino gehiago bultzatzen gaitu beren antzeko pertsonak izan edo bilakatzera; eta ondorioz, askotan arazo handiak ere ekartzen dizkigute. Alde batetik, lagunekin arazoak edukitzen hasten gara, gure fisikoa aldatzen joatearekin batera askotan gure izateko era asko aldatzen baita. Bestetik, gure gorputzarekin arazoak edukitzen hasten gara, hau da, gaixotasunak... Gaitz larrienak, bulimia eta anorexia izaten dira eta kaltetuena, berriz, neska gazteak. Beraz, ez al da hobe garen bezalakoak izatea, eta ez telebistako giza ereduak kasu egitea?



ANJE DUHALDE, George Brassens en kantari

Bete berriak dira hogei urte George Brassens kantaria eta idazlea hil zela. 1981ean izan zen, Bob Marley hil zen urte berean; a, ze bi!

Gure belaunaldikoak ordurako kokortu ginen, Txirri, Mirri eta Txiribitonon kantuak entzuten genituen jada. Urte hatzuk geroago, Bob Marley ezagutzen hasi ginen: ile zarpa, porroak, Etiopiako banderaren koloreak... bere estetika behintzat ondo ezagutzen genuen. George Brassens, ordea, izenez ere ez genuen ezagutzen. Neronek, aurreneko aldiz bere aditzera La Mandragora taldearen bidez izan nuen. Joaquin Sabinak, Javier Kraek eta Alberto Perezek, sekula santan entzun dudari amodiozko kanturik onena abesten zuten gaztelaniaz, *La Tormenta*, George Brassensena zen. Geroztik, Ikastolan ingelesarekin soilik torturatzen gintuztenez, frantsesaren beharra sentitu dut Brassens entzun izan dudari bakoitzean, ironiaz betetako letra edor horiek ulertu ezinean geratu naizen bakoitzean.

Ba, udazkenean, oraindik frantsesari heltzeko nagoen artean, aspaldian zain neukan diskoa atera du Anje Duhaldek Brassens en kantuak euskaratuta. Bi gitarra, eta kontrabaxua lagun kantari handi haren arrastoa laga nahi izan du Anjek euskaraz. Itzulpen ederrak, kantaera garbia, musika goxoa... eta zuzenekoak erantzen dion gertutasuna. Halaxe nahi izan du Anjek, Brassensek egiten zuen gisan, areto txiki batean, kuadrillatxo baten aurrean, baina belarri askotara heltzeko asmoz. Benetan, hogei urte geroago, Brassens en esanak bizirik diraute, disko hau entzun besterik ez duzue hortaz jabetzeko.

RIKARDO UZKUDUN



ERREZETA

NEGRE ARROZA TXIPIROIEKIN

Lapikoan saldaren osagarri guztiak jarri eta 3 litro urarekin nahastu. Ordu bete egosten utzi.

Txipiroiak garbitu eta tirtetan zatitu. Tipulak fin-fin xehetu eta tomatea concaséan zatitu. Buztinezko ontzi batean tipula biguntzen jarri eta kolorea hartzen duenean, txipiroiak gehitu eta ondoren tomatea. Txipiroi tintak arrain saldari bota (arrozaren bikoitza). Arrain salda pixka batekin busti buztinezko ontzia eta 25 minutu irakiten utzi su baxuan. Gelditzen den salda gehitu eta irakiten hastean arroza gehitu. Arroza egin arte egosten eduki. Amaitu baino minutu batzuk lehenago labean sartu lehor eta solte geldi dadin.

XABIER ATORRASAGASTI

OSAGAIAK

600 gr. arroza
800 gr. txipiroi
300 gr. tipula
4 tomate heldu
2 dzi. olio eta gatza

Arrain salda:

Tipula erdi bat
Azenario 1
Arrain hezur eta buruak
Txipiroi tinta

Orain dela 25 URTE

IKURRINA LEGEZTATU ZUTEN SAN SEBASTIAN BEZPERAN

Orain dela hogeita bost urteko urtarrilaren 19a ez zen San Sebastian bezpera arrunta izan, egun horretan bertan ikurrina legeztatu baitzuten, eta, ondorioz, festa inoiz baino handiagoa izan zen. Hala ere, izan zen albistea gustura hartu ez zuenik. Bizkaiko Diputazioa erabakiaren aurka azaldu zen aho batez, eta Gobernadore Zibilak dimisioa aurkeztu zuen. Gipuzkoako Diputazioan ere ikurrina balkoian ez jartzearen alde azaldu ziren. Herri gehienetan, ordea, sekulako harrera egin zitzaion ikurrinari. Orion, aho batez onartu zuten ikurrina balkoian jartzea eta arratsaldeko zazpitan igo zuten, plaza jendez gainezka zegoela. Jarri zuten ikurrina berrogei urte lehenago kendu zuten berbera izan zen. Urte luze horietan Iñaki Lasak izan zuen etxean, eta handik atera zuten berriro ere udaletxean jartzeko.

ATENTATU ETA BAHIKETAN

Urtarrilaren azken egunak odoltsuak izan ziren. 23an *Gerrilleras de Cristo Rey* taldeak Arturo Ruiz, 19 urteko ikaslea, hil zuen Madrilén; hurrengo egunean, berriz, atentatuaren aurkako manifestazioan poliziak Maria Jesus Najera hil zuen eta egun horretan bertan CCOO sindikatuko

'El Quijote' liburu ospetsua euskarara itzuli zuen Pedro Barrondok.

Aurkezpenean jende ugari bildu zen, berri ona ospatzeko.

bost abokatu hil zituzten bere bulegoan zeudela Atocha kalean. Bi egun horietako hilketak zirela eta, manifestazio ugari izan zen herri guztietan eta baita greba orokorra ere hilaren 26an.

Bestalde, 24an, hilketen egunean, GRAPOk Villaescusa teniente generala bahitu zuen, eta 28an bi polizia eta guardia zibil bat hil.

IRUNTXI BERRIREN ALDEKO JAIALDIA

Errege egunean Tolosako zezen-plazan Iruntxi berriren aldeko kirol-jaialdia izan zen, korrikalari aiarra gaixorik baitzegoen eta harentzat dirua jasotzeko asmoz.

Bertan, Arria Ila eta Mindegiaren arteko desafioa izan zen lehendabiziko proba, ondoren Agustin Ostolaza, Endañeta eta Perurena jardun ziren harria jasotzen eta, azkenik, Mariano Haro korrikalariaren txanda iritsi zen. Harok, Iruntxi berriren koinatuak, Arruizko Txikiak eta Gordon Piriek-ek 16 urte lehenago ezarritako markak hautsi zituen. 10 km. egin zituen korrika 29 minutu eta 52 segundoan. Gainera, marka haustez gain, Jourdan, Artola eta Yugueros korrikalarien aurka ere lehiatu zen aldi berean. Hauen txandaka egin zituzten 10 km.ak, bakoitzak herena, eta, hala ere, Mariano Harok irabazi zuen.

JAIOTAKOAK

- Miren Zipitria Ibarrola, Aian, abenduaren 18an.
- Nora Lizarralde Uranga, Orion, abenduaren 26an.

HILDAKOAK

- Agustin Lopez Berregi, Orion, abenduaren 22an. 62 urte.
- Federico Bergado Garzia, Orion, urtarrilaren 1ean. 74 urte.
- Maria Aurizenea Gesalaga, Aian, urtarrilaren 7an. 94 urte.

EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik izan.



ESKER ONEZ

Alaitz Arriola Larreta

Alaitz Arriola Larreta haurtasaren familiak eskernak eman nahi dizkizue. bihotzez, momentu latz hauetan laguntza eman diezuzen gutxi.

Gabriel eta Arantza

OSPARZUNAK



OLINPIADAK

jokatu ziren Gabonak aurretik ikastolako irakasle eta ikasleen artean. Futbolean, saskibaloian, sokatiran eta brilleten aritu ziren, eta azkenean suspentso irakasleek! gaztetxoenen kontra jokaturakoak bakarrik irabazi baitzituzten. Argazkia futboleko finala jokatu ostean eginda: **3-1 irabazi zuten DBH4ko ikasleek.**

ZORIONAK

Herriko odolki eta txistorra egileei

Odolki eta txistorra egile bikainak ditugu Orion eta 200teko bukaeran han-hemenka ibili ziren sariak jasotzen. Tolosako odolki txapelketan Miren Loidik irabazi zuen 1. saria eta Juan-txo Bravok 2.a. Donostian, berriz, Etor Manterola 2. geratu zen eta Kepa Loidi 3. txistorra lehiaketan. Zarautzen ere lehiatu zen Kepa, eta txapela jantzi zuen txistorra txapelketan. Lukainka egile horiek guztiak zoriondu nahi ditugu.

Oiana BLANCO



'Espainiako Judo Txapelketa ari naiz prestatzen'

Oiana Blancok 18 urte ditu orain, eta 4 urterekin hasi zen judo egiten. Martutenean, mojen eskola batean egin zituen OHOk 7 urte eta han hasi zen judoan ere.

Bazkaldu ostean ematen zituzten eskolak, eta Oianak eskolan bazkaltzen zuenez, lagun bati ikusi, gustatu eta probatu egin behar zuela-eta hasi zen. Ergobin, Astigarraga eta Hernani arteko auzo txiki batean bizi izan da beti Oiana. Baina ama oriotarra du eta bera ere 12-13 bat urtera arte Orion egon da erroldatuta.

Zergatik aukeratu duzu judo egitea?

Txikitik denean apuntatzen nintzen: saskibaloian, futboleak... judoan gustura ibiltzen nintzen eta 13 urterekin Espainiako txapelketan bigarren geratu nintzen. Hori ikusi nuenean, ilusio handia egin zidan eta aurrera segitzeko animoak eman ere bai.

Ama lasaiago egoten al da judoan dakizulako, parrantatik ordu txikietan etxeratzaren zarenan?

Ez. Gainera, norbaitek eraso egingo balit, iruditzen zait, lehenengo jo eta gero korrika alde egingo nukeela, eta ju-

doan ez da jotzen. Judoa bestea lurrera botatzea da, eta lurrean immobilizatu, estrangulatu edo luzatu egin behar da. Ez zait inoiz gertatu; baina, norbaitek eraso zergo, ez dut uste lurrera botako nukeenik.

Neska asko al zabilzate judoan?

Ez, asko ez; baina orain, esaterako, Usurbilen entrenatzen dut eta han 9-10 badaude helduen klasean. Lehen Hernania ibiltzen nintzen eta 4 neska bakarrik ginen eta horietatik 2 bakarrik joaten ginen entrenatzera beti. Usurbilen orain gusturago nabil,

bakoitzak judo egiteko bere estiloa duelako, eta jende gehiago izanda, hobeto prestatzeko aukera dudalako.

48 kiloz azpikoetan aritzen zara. Inoiz egin behar izan al duzu erregimenik?

Ez, nik suertea dut eta normalean pisuarekin ondo ibiltzen naiz. Beste batzuek erregimen gogorrak egin behar izaten dituzte eta indarra galtzen da.

Lesio handirik izan duzu?

Ez, behatzak okertu izan ditut erori txarren batekin, baina lesio handirik ez. Behin hanketako behatz txikia okertu nuen eta kristoren mina pasanuen. Erortzen garenean, zarata handia ateratzen dugu, baina normalean ez dugu minik hartzen. Txikitatik erakusten digute nola erori.

Zer ezaugarri behar ditu judoka on batek?

Teknika ona izatea, eta, aparte, jakitea: judokak indarra behar du, baina kontrarioaren indarra aprobetxatzen ere jakin behar du, bestea deseki-

libratuta dagoenean aprobetxatu behar da. Gero, fisikoa ere garrantzitsua da.

Irabazi dituzun txapelketa garrantzitsuenak?

13 urterekin Espainiako txapelketan bigarren geratu nintzen. 15 eta 16 urterekin Espainiako lehen geratu nintzen, baita zaharragoen kategorian ere. 2001ean juniorren kategorian hirugarren egin nuen eta sub23n bigarren. Orain Espainiako txapelketarako prestatzen ari naiz: otsailan junior mailakoa dut, eta gero seniorretakoa. Nik 18 urte ditut eta juniorren kategorian sartzen naiz, baina sub23n eta seniorretan ere jokatzen dut zaharragoekin.

Oriotarra al zara?

Bai, Ergobin bizi naiz, baina ni oriotarra naiz. Gainera, 12-13 urte arte Orion erroldatuta egon nintzen, eta gurasoekin batera Astigarragan erroldatu nintzen orduan, paterekin hara eta hona ez ibiltzeagatik. Halere, astebukerak, zubiak eta oporrak Orion pasatzen ditut izebarenean.



Eskabetxeriako langileak

Irudian eskabetxeriako langileak ageri dira palotetan. Atzean ikusten den eraikin txuria gaur Orio's shop eta Charter daudena da; argazkiko neska-mutilak agertzen diren lekuan orain etxeak eta etxeak daude, baina lehen zelai handia zegoen atzealde horretan. Ramoni Elizondok esan digunez, 1963 edo 1964 ingurukoa da argazkia,

berak garai hartan 16 bat urte zituelako; eta lanetik aterata egindako argazkia da. Ezkerretik eskubira honakoak agertzen dira argazkian: Manuel Elizondo, Kontxa Larraza, Pilar Zubiria, Ramoni Elizondo, Joxe Leunda, Maribel San Sebastian, Teresa Oliden, Mertxe Oliden eta Arantxa Enbil.

Ramoni Elizondok utzitako argazkia.



943 89 04 89 / 88.
iturriotzapi@terra.es

Aia

Eguneroko menua - Bazkari bereziak - Bataio, komunioak...

Kaia kalea, 7 • Tfno. 943 13 11 79 • 20810 ORIO (Gipuzkoa)

Peluteria eta estetika mirtoa

- Tissue egokiaz eta koloretan egokituta
- Dendak eta zurrak irabiltzen
- Azkarrak erabiltzen
- Pielak
- Depilazioa

San Bikelor, 2 Telf: 943 85 31 79

DORRONSORO

Abentziak, 3 Telf: 943 83 00 47

EDARITEGIA

KOLON TXIKI

JATETXEA

Herriko Errepublikar, 4 - 0810 - Tlf. 943 83 00 44

OLIDEN HARATEGIA

**Eusko Gudari, 2
Tfnoa: 943 83 10 86**

IBILALDI GIDATUA

- Aian, urtarrilaren 26an. Elkargunea: Iturraran, Pagoeta parkeko informazio zentroa. Irteera: 9:30ean. Ibilbidea: Iturrarrietik Artetxotara autoz, Amezketalardi, Saberriko haitzak, Lizarra, Mindi, Artetxota. Itzulera: 13:30erako abiapuntura.

TALAI MENDI

- Gaintxipixa-Otarrera joateko irteera antolatuta du Talai-Mendik urtarrilaren 13rako.

'SALTOKA' AEROBIK MARATOIA

- Urola Kosta Udal Elkarteak antolatuta. Getariako Sahatsaga kiroldegian, urtarrilaren 19an, 17:00etan. Ikusi 11. orriari.

FUTBOLA

- Orion, urtarrilaren 13an: Kadeteen 2. maila Orio-Hondarribia.

PODOLOGOA

- Aian, urtarrilaren 26an, podologo zerbitzua. Izen-ematea, udaletxean, Tel: 943 13 11 44



TXOTXONGILOAK. *Hainbat ikuskizun izan dira Gabonetan haurrentzat.*

ARETO FUTBOLA

- Orion, urtarrilaren 20an: Orioko Tabernak 2.A-CC Ext. La Bellota.
- Orion, urtarrilaren 20an: Orioko Tabernak Autonomikoak-Araba Etxea.

ERAKUSKETAK

- Salbatxo tabernan. Jacky Berekoetxea musikariaren argazki erakusketa otsailaren 3a arte. Gaia: Afrika.

HITZALDIA

- Atzegi Gipuzkoako atzeratuaren elkarteak antolatuta, bideo emanaldia eta hitzaldia izango dira Orioko kultur etxean urtarrilaren 23an, 19:00etan.

ZAHARREN BABES LEKUA

- Urteko batzar nagusia egingo da udaletxeko batzar aretoan, urtarrilaren 18an. Aurreneko deialdia 16.30etarako izango da eta bigarrena 17:00etarako.

SOFBOLA

- Sofbol mixtoa torneoa: kadeteak, OBB-Hondarribia, eta jubenilak, OBB-San Marcial (Iruñ). Urtarrilaren 12an, eta aurreko partida 14:00etan hasiko da.

ERROMERIA

- Urtarrilaren 13an erromeria izango da Aristerrazun Ansorregi eta Larrañaga trikitilariekin, 21:00etan.

ZAINZAKO BOTIKAK

URTARRILA

- 1In, Barrenetxea
- 12 eta 13an, Uranga
- 14an, Barrenetxea
- 15ean, Olaizola
- 16an, Mutiozabal
- 17an, Iriarte
- 18an, Uranga
- 19 eta 20an, Azaldegi
- 21ean, Olaizola
- 22an, Mutiozabal
- 23an, Barrenetxea
- 24an, Uranga
- 25ean, Azaldegi

AZALDEGI: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 ZARAUZ

BARRENETXEA: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 ZARAUZ

MUTIOZABAL: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 ZARAUZ

OLAIZOLA: S. Frantzisko kalea, 16. 943 13 38 14 ZARAUZ

LASA: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio

URANGA: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 ZARAUZ

IRIARTE: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 ZARAUZ

ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 ZARAUZ

GOIZEKO ☀️
Kafetegia
 Gosariak
 Pintxoak
 Plater Konbinatuak
 Ogitarkekoak

Pastelotxo onargarriak hartzen dira

Etzera oramateko eskatu nahi duguna!!!

Aita Lortzandi Kalea, 29
Tel. 943 83 25 55 Orio

HI

HERRI IKASTOLA

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL. 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38



ORIOKO UDALA

Kiroldegiko taberna

Kiroldegiko taberna subastara aterako da berriz. Eskaerak aurkezteko epea otsailaren erdi aldera amaituko da (oraindik zehaztu gabe dago eguna). Interesa dutenek jo dezatela udaletxera eta han emango zaie informazio gehiago

idazle gaztea

**Galtzagorri Elkarteak eta Euskaldunon Egunkariak,
Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesaz, Idazle gaztea
literatur lehiaketara dei egiten dute.**

DINARRIAK

✓ Norentzat

Lehiaketan parte hartzen izango dute Gipuzkoako ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ari diren ikasleek.

✓ Sailak

Lehiaketak bi sail izango ditu: narrazio laburrak eta poesia. Ikasle bakoitzak gehienez lan bana aurkez dezake sail bakoitzean.

Narrazio laburretan gehienez 3 orrialdeko (6.000 bat letragune) lanak onartuko dira. Poemetan, gehienez 90 lerroko lanak.

✓ Kategoriak

Lehiaketaren sail bakoitzean bi kategoria bereiziko dira: A kategoria, DBHko lehen zikloko ikasleena; B kategoria, DBHko bigarren zikloko ikasleena.

✓ Lanak aurkezteko era

Lehiaketan parte hartzeko idazlanak ikastetxeak aurkeztu behar ditu, ikasleen izenean. Ikasgela bakoitzetik gehienez 5na idazlan onartuko dira sail bakoitzean.

Idazlanak aurkezteko epea 2002ko otsailaren 2an amaituko da.

Lan guztiak goitizen batez izenpetuko dira, baina bidaltzerakoan egilearen izen-daturak, ikastetxearen izena eta ikasmaila ere azaldu behar dira. Datu horiek isilpean gordetako dira sarien erabakia aditzera eman arte.

Idazlanak posta elektronikoz bidali behar dira helbide honetara: galtza.hgt@euskalnet.net.

✓ Hautapena

Jasotako lan guztien artean 10 lan hautatuko dira sail eta kategoria bakoitzean. Hautapen batzordea osatuko dute Galtzagorri Elkartearen ordezkari bik eta Euskaldunon Egunkariaren ordezkari bik.

✓ Bozketa

Batzordeak hautatutako lanak Euskaldunon Egunkariaren web orrian agertuko dira (<http://www.egunkaria.com/literatura>), 2002ko martxoaren 4tik aurrera.

Euskaldunon Egunkariako irakurleek botoa eman ez aukeratu dituzte sail eta kategoria bakoitzeko hiru lan irabazleak. Pertsona bakoitzak boto bakarra emateko eskubidea izanen du, 2002ko maiatzaren 15a bitartean.

✓ Sariak

Idazleentzat: lehiaketako sail eta kategoria bakoitzean sari nagusi bat eta bi sari osagarri izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak emanak.

Irabazleen lanak Euskaldunon Egunkarian argitaratuko dira.

Irakurleentzat: bozketan parte hartutako irakurleen artean sari bat zozketatuko du Euskaldunon Egunkariak.

Saridunak 2002ko maiatzaren 23an emango dira aditzera «Liburu Gaztea» programaren barruan Gipuzkoako Foru Aldundian egingo den saioan.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua



Egunkaria